

Zirkulazioa mugatzea berotegi-efektuaren kontrako erabateko konponbidea izango litzateke

Lovina Unibertsitateko irakasle den Bernard Delmon zientzialariak dioenez "berotegi-efektua eragiten duten gas-emisioak mugatzeko neurriak berehala hartu beharrekoak dira". Defendatzen duenarik bat autoei buruzkoa da, hauek baitira Europar energiari gehien kontsumitzen dutenak. "Erabateko konponbidea auto eta kamioien zirkulazioa mugatzea da. Kontsumoa gutxitzeko beste bidea diesel-motor berriak izan daitezke. Horrez gain, autoen pisua murriztea, karburazioa

automatikoki kontrolatzea, eta abar ere, kontsumoa gutxiagotzeko bideak dira. Baina hori posible egingo duen teknologia azkar garatzera bultzatu behar da auto-industria, puntu horietan energia aurrerzteko aukera handiak baitaude." Delmon-en ustez "gas-emisioek Lurrean eragina izango dutela begien bistakoa da, baina eragin horren luze-zabalera eztabaidagarria da. Dena dela, eztabaida ez dugu berotegi-efektura mugatu behar, gizakiak naturan duen

eraginera eta guztiok etorkizuneko belaunaldiekiko dugun erantzunkizunera baizik. Gizarteak ingurugiroari begiratzen ez dion sistema ekonomikoaren kontra egin behar du borroka". Bere hitzetan "errua guztiona da. Gizarteak politikarien eta multinazionalen erabaketan nola eragin dezakeen aztertzean dago gakoa. Zientzialariok zentzuzko konponbideak aurkeztu behar ditugu eta gizarteak, ondorien arabera, bata edo bestea aukeratu behar du."

Informazio-iturria: El Diario Vasco 2000/04/13

Ekologistak, automobilak eta iritzi publikoa

Iñaki Barcena

EHUko irakaslea eta EKIko kidea

Ekologisten ospe onaz ez dago zalantzarik. Eurobarometrotik Euskobarometroraino argitaratutako iritziek argi diote talde eta erakunde ekologistak, alderdi politiko eta sindikatuak baino askoz onartuagoak direla. Ingurugiro- eta bizi-baldintzak zein osasunaren babes desinteresatua esker onez hartzen dira.

Badirudi, ostera hirian sortzen diren gai eta polemika berezi batzuen inguruan gauzak ilunago daudela eta ekologisten kritikak ez direla hain ongi hartuak, automobilaren auzian, adibidez.

Nire ustez automobila dugu mende honetako tramankulu teknologikorik hedatuena eta, agian, kaltegarriena ere bai. Gure ekonomiaren zati handi bat errepede, petrolio eta autoen produkzioan oinarritzen delarik, multinazional gutxi batzuen kontrolpean gainera, ingurugiroarentzat eta gure bizitza-kalitatearentzat gai-

xotasun berria bihurtu zaigu automobila. Istripuak, isunak, poluzioa eta hiri-espazioa okupatzea txanponaren alde ezkorra baldin badira mugikortasuna, estatus soziala eta askatasun-sentimendua lirateke erakargarritasunak. Autoen publikitateak ez du erreparorik "sex appeal" edota naturaren konkistarekin jolasteko; azken batean, automobil pribatuak gure zorioren zati dexentea ordezkatu nahi du. Ingurugiroaren aldetik (aldaketa klimatikoa, egurats-poluzioa eta hiriak desegituratzea, adibidez), baita gizarte-ikuspuntutik ere, autoak eta automobilgintza faktorerik negatiboenak ditugu.

Gure artean, gobernu zentralak zein autonomikoek ez dute oraindik arazoa ikusi nahi izan. Errepideak, saihesbideak, tunelak eta autobideak dira gure politikarientzat garapen ikurra. Badirudi autoek dutela boto-emileen eskubidea.

Kultura automobilistikoaren preso gara eta autorik gabe ez gara ezer, ez gara

inora heltzen. Dena den, datuak hor daude (hauek Bilbokoak dira) eta sinesgaitzak ala ez, oraindik ere gure hirietan gehienak oinezkoak dira (% 48a) garraio publikoa erabiltzen dutenekin batera (% 23a). Autoa erabiltzen dutenak laurden bat baino ez dira eta bere "bidaia" normalean ez da kilometro t'erdia baino luzeagoa izaten.

Autoak teknologiaren aldetik gero eta hobek, ziurragoak eta energetikoki eraginkorragoak dira, baina horrek onetik ezer gutxi ekarri dio ingurugiroari, matrikulazioak zitzu bizian goraka egiten duen heinean.

Horrexegatik ekologisten proposamenak txarto ikusiko dira kontsumoak eta produkzioak tankera-aldaketa sakona eskatzen dutelako. Automobilaren hedapenari fretoa jartzea, katuari txintxarria ipintzearen antzeko dema handia dugu, baina publikoaren iritzia alde izateko aliatu eta bidaideak ez dira faltako. 